

# Atzerritar



UXUE APAOLAZA LARREA

**E**ta mugak igarota ere zer, muga azalean geratzen da, eta betirako, etengabe, da atzerritar barruan muga daramana, hain atzerritar, ezen ez duen guztiz pertsona ematen. Ezen hori baino ez dugun ikusten, hemengoa izanik ere bai, askotan, ijtoa bada, adibidez, atzerritarra (mugarik gabea). Guardia Zibila eta atzerritarra. Ertzaintza eta atzerritarra. Boluntarioa eta atzerritarra. Funtzionarioa eta atzerritarra. Beste zuri bat eta atzerritarra. “*Espera ahí: a-hí*” eta atzerritarra. “Itxoin hor” eta atzerritarra, “*que es-pe-res a-hí*”. Gurasoa eta atzerritarra. Leihatilakoa eta atzerritarra. Bizilaguna, hori ez, hori ere atzerritarra, atzerritarra eta atzerritarra. Parkean ere gero eta atzerritar gehiago, parke horretan, ez bestean. Bi baino gehiago izaten hasi ziren, eta... Eskolan ere bai. Umea eta *MENA*, atzerritarra. Dendaria eta atzerritarra. Medikua eta atzerritarra. Administraria eta atzerritarra. Gorroto duena eta atzerritarra. Irakaslea eta atzerritarra. Eta, agian, hemen jaio da, baina atzerritarra. Adineko gizon-emakumeak eta atzerritar gaztea. Langileak eta atzerritarra, garbitzailea, atzerritarra. Hemengoa eta atzerritarra. Bi atzerritar, hiru atzerritar, lau atzerritar... atzerritar uholde bat. Segurata eta atzerritarra. Nire etxea eta atzerritarra. Barkatzen duena eta atzerritarra. Nahiago ditut hangoak, ez beste hangoak, atzerritarrak. Langileagoak dira. Ezaguna eta atzerritarra. “Nik ezagutzen dut atzerritar bat” eta atzerritarra. “Familiakoa bezalakoa da” eta atzerritarra. Fidatzekoa eta atzerritarra. Zu (?), ni, eta... ●



## Politika

Trafikoaren eta Segurtasunaren eskumena Nafarroaren esku uzteko dekretua atzera bota du Espainiako Auzitegi Gorenak, Guardia zibilen Jucil elkarteak jarritako helegiteari tiraka. Maria Chivite lehendakariak esan du Foru Hobekuntza aldatuz eskuratuko duela Nafarroak eskumena.

## Polizia

Jada hiru gaztek salatu dute Ertzaintzak zauritu zituela Tolosako inauterietan. Josu Erkoreka Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak, baina, foam jaurtigailuaren aztarnak agertu diren arren ez du onartu Ertzaintzak erabili zituenik eta zalantzan jarri du Ertzaintzak Villabonako gaztea zauritu izana.

## Musika

EHZ festibalaren 28. edizioa aurkeztu dute. Musika jaialdia Irisarritik Amikuzeko Arberatze herrira aldatuko da, ekainaren 28, 29 eta 30ean. Ohiko eredia mantenduta, musikaz gain bestelako jarduerak ere antolatuko dituzte (mintzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, hauren txokoa, zirkua...).